

EUROPAR BATASUNAK ASILO POLITIKA BERRIKUSI DU

ACNUR eztabaidan parte hartzen ari da eta errefuxiatuen eskubideak ziurtatzeko berme gehiago emango dituen Dublingo Araudi berria proposatzen du.



UNHCR/H.J.DAVIES

Indiano eta bangladeshko etorkinak eta asilo eskatzaileak Esloviakako Errepublikan dagoen Scovceko atxiloketa gunean.

EUROPAR BATASUNAREN DUBLINGO BIGARREN Araudiak, asilo eskaerak aztertu behar dituen estatu kideak zein izan behar duen izendatzen duenak, berrikuspen sakona behar du asilo eskatzaileen eta errefuxiatuen eskubideak errespetaratzeko, ACNUR kaleratutako txostenak erakusten duenez. ACNURek txostena aurren aurkeztu du, Europako Batzordea Araudiari buruzko bere berrikuspena prestatzen ari den bitartean.

“Gabeziak ikusten ditugu bai Araudian eta baita Araudia gauzatzeko orduan ere. Asilo eskatzailei trabak jartzeaz gain, asilo eskaera aztertzeke erantzunkizuna hartuko duen estaturik gabe ego-

tea bezalako egoerak sortzen ditu”, adierazi zuen ACNURek Europan duen Bulegoko zuzendariak, Pirkko Kourolak, Dublingo bigarren Araudiari buruz argitaratutako txostena aipatuz. “Dublingo Araudiaren helburuak betetzeko gabezi hauek zuzendu beharra dago”.

Dublingo bigarren Araudia 2003ko irailean sartu zen indarrean. Araudiaren xedea asilo eskaerak ze estatuk aztertu behar dituen zehaztea da eta honenbestez asiloa herrialde batean baino gehiagotan eskatzeko orduan etsitu egiten du jendea.

Asilo eskaera Europar Batasuneko estatu batetik bestera eskualdatzea berdintasunaren printzipioan oinarritzen da, batasuneko edozein herrialdetan ba-

bes maila bera emango ziola argudiatuz. Europar Batasuneko asilo politikan bateratzea ordea oso urrun dago. Bai prozedurak eta baita asiloari buruzko legeak ere asko aldatzen dira Europar Batasuneko estatu batetik bestera. Aldea agerian geratzen da herrialde bereko bizilagunek herrialde batean eta bestean asiloa eskatu ondoren onesten datuak alderatzerakoan. Irlandan adibidez Somaliarren eskaeren onarpen maila % 12 da, Alemanian % 34 eta Erresuma Batuan % 86.

Nazio Batuen Erakundeak Errefuxiatuentzat duen Goi Komisionatuak egindako txostenak gabezi hauek zuzentzeko hogeitahiru aholkurekin zerrenda osatu du. Dublingo Araudian eskatzen duen aldaketa nagusia asilo eskatzaileak Europar Batasunetik kanporatzeari buruzkoa da, eskaera aztertu aurretik inor ez kanporatzea eskatzen du.



UNHCR/H.J.DAVIES

1.- Grezian asilo eskaera baten prozedura eteteak dituen ondorioak

Sudango bizilagun batek Darfur eskualdetik ihes egin zuen bere herrialdean gerra hasi zenean. Emaztea eta haurrak han utzi zituen. Bere herrian hamaika urtez goitiko gizonezko guztiak hil egin zituzten. 2003ko Ekainean Greziako mugetan sartu zen legez kanpoko egoeran, eta hiru hilabetez atxilotuta eduki zuten. Askatu zutenean asilo eskaera egin zuen Atenasen. Bi aste kalean lo eginez pasa ondoren Erresuma Batua joatea erabaki zuen lagun batek han hobeto hartuko zutela esanda. Agintari inglesak Dublingo bigarren Araudia ezarrita Greziara eraman zuten eta bere asilo eskaera han tramitatzeko eskatu. Grezian zela berriz atxilotu zuten eta agintariak jakinarazi zioten, herrialdetik kanpora joan zenez, bere asilo eskaeren prozedura eten egin zutela. Bere eskaera berriz aztertzeko helegitea jarri zuen, baina ez zuten onartu, agintarien arabera bigarren eskaera lehenbizikoaren antzekoa zelako. Finean, bere asilo eskaera ez zuten inoiz aztertu.

Iturria: ACNUR

2.- Helegitea aurkezteko trabak

Asilo eskatzaile bati bere eskaera beste herrialde batetara eramango dutela jakinarazi behar zioten egunaren bezperan, txekiako agintariak ONG bati galerazi egin zioten present egotea. ONGari abisuaren eguna, ordua eta lekua besterik ez zizkioten jakinarazi. Biharamunean asilo eskatzaileak erabakiaren berria bera bizi zen babes zentroan jaso zuen. Txekiako agintarien arabera, erabakiaren albistea eman ziotenean Barne Ministerioko Ofizial batek errekurritu nahi al zuen galdetu zion. Helegitea aurkezteko ordudiko epea zeukan. Denbora urria izateak zaildu egiten du noski eskubidea gauzatzea. Helegitea jartzea are zailagoa da laguntzen ari den ONGak ez badu kasuari buruzko xehetasunik.

“Agentziak, bere txostena Europako Komisionari Dublingo bigarren Araudia aztertzeko baliogarria izatea espero du”, azaldu zuen Kourolak. Aurten aurkeztuko dizkie Batzordeak aholkuak Justizia eta Barne Ministroen Kontseiluari eta Europako parlamentuari. Goi Komisionatuak bildutako datuekin egin duen kalkuluaren arabera, 2005ean Europako Batasuneko 25 estatuetan aurkeztutako 237 840 asilo eskaeren % 15 Dublingo bigarren Araudiak ezartzen dituen arduaren arabera bideratu dira.

“Dublingo bigarren Araudiaren azterketa. ACNURen eztabaidarako dokumentua”, adibide jakinekin ACNURen web orrian eskuratu daiteke.

<http://www.unhcr.org/cgi-bin/texis/vtx/home/pendoc.pdf?tbl=RSDLEGAL&id=4445fe34>. ■

ACNURek bermea eskatu du, asilo eskaera eskualdatzen dutenean helegitea aurkeztu ahal izateko. Nahiz eta Dublingo Araudiak errekurtsioa jartzeko aukerarik ez aitortu, estatu guztiek jasotzen dute errekurtsioaren bidea. Hala ere ez dago argi asiloa eskatzen dutenek eskubidea izan arren modu eraginkorrean gauzatzen ote den.

Atxiloketa gunea.